

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

582

*EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 14koa, HABEren zuzendariarena, 2020. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan inskribatutako alta-inskripzio eta bestelako oharpenak argitara ematen dituena.*

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak, Kultura sailburuarenak, 2. artikuluan ezarritakoaren araberak, eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2020. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan jasotako oharpenak argitara ematea (Eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 14a.

HABEko zuzendaria,  
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

## ERANSKINA

## HELBIDE-ALDAKETA IZAN DUTEN ZENTROEN ZERRENDA

Izena	Erreg.zenb.	Helbide berria	Ebazpenaren data
Mikelats euskaltegia	302	Poza Lizentziatuaren kalea, 56- solairuartera. Bilbo.	2020-09-07